

EUSKARAZ BLAI

(Hizkuntza Proiektua)

SANDUZELAI I.P.

Avda.San Jorge, 30

31012 Iruñea

Tfnoa: 948172579

Faxa: 948268651

Posta-e: cp.sanduzelai@pnte.cfnavarra.es

1. SARRERA	4
2. HELBURUAK	5
3. MEMORIA	9
4. EGITASMOAK	11

ERANSKINAK:

I.ERANSKINA	2000/20001. Urteko txostena	14
	2000/2001. Urteko erabilera plana	
II. ERANSKINA	2001/2002. Urteko txostena	19
III. ERANSKINA	2002/2003. Urteko txostena	24
	2002/2003. Urteko Erabilera Plana	
	2003ko Oroitidatzia	
	2003ko Euskara Lan Taldea	
IV. ERANSKINA	2003/2004. Urteko txostena	40

1. SARRERA

Eskolak betidanik izan du kezka ikasleen ahozko erabilerarekin eta erabilerari hori bermatzen eta jasotzen saiatu da.

2000 urtean hasi ginen Euskara Zerbitzuak antolatutako “Euskararen erabilerari sustatzeko estrategiak” izeneko programetan.

Hiru urtez jarraitu ditugu ikastaro horiek klaustrakide guztiak eta ordutik aurrera urtero hartu dugu parte Euskara Zerbitzuaren programetan.

Horri esker gauza asko egin dira, baina asko dago egiteko oraindik ere.

Hizkuntzari dagokionez, zera da lortu nahi duguna: Euskara izatea ez irakasle ikas prozesuko hizkuntza soilik, baizik eta partaide guztien arteko komunikazio hizkuntza (batez ere ikaslerian, haien artean ageri bait dira hutsunerik handienak).

2. HELBURUAK

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA HELBURUAK:

Sanduzelai Ikastetxe Publikoan, ikas-irakas hizkuntza, harremanetako hizkuntza eta eskolaren hizkuntza propioa izanen dugu euskara, horren erabilera eta kultura transmititu eta garatzeko helburupean.

Helburu honek, ikasleengan eragin zuzena duen beste irakurketa pragmatikoagoa dauka, sarreran aipatu bezala, haiek bait dira behar handien erakusten dutenak:

Ikasleen arteko ahozko erabilera sustatu, bermatu eta garatu nahi dugu.

Ahazkotasunean jarri dugu gure arreta, ezaguna bait da hizkuntza idatzian ikasteke elebidunetako ikasleek orokorrean, behar duten maila duina lortzen dutela. Horren frogara, gurasoen artean lortutako onarpen handia, eta baita Unibertsitate aurreko ikasketetan lortzen diren emaitzak.

Hori guztia lortzeko asmoarekin garatzen ari gara Ikastetxeko Hizkuntza proiektu hau. Partaide guztien adostasunean oinarriturik, normalizazio prozesua definitzen eta denok batera bidea egiten saiatzen ari gara, baita bakoitzaren betebeharra zehazten ere. Era berean eskolaren betebeharra bere inguruengan duen eraginean ere (auzoan eta herrietan) bideratu nahi dugu.

OINARRI LEGALA:

Helburu horrek, Euskararen Legean eta berau garatzeko Irakaskuntzan Euskararen Sarrera eta Erabilera Arautzeko Dekretuetan aurkitzen du bere babesa.

Bertan zehazki zera adierazten da: “Ikastetxe Publiko Elebidunek zilegi izanen dute euskara beren barne jardunetan adierazpide gisa erabiltzea.

Era berean bi hizkuntzak batera ere erabili ahal izanen dira beren jardun batez ere kulturaletan, kanpo aldera begira egiten badira.”

SANDUZELAI IKASTETXEKO HELBURU NAGUSIAK:

2.1. DOKUMENTAZIOA:

Eskolako Hezkuntza proiektua, Curriculum proiektua, Antolakuntza eta jarduketa araudia, ikasturteko plana, memoria eta abarreko txostenak euskaraz idatzita egonen dira. Ikastetxeak gaztelerazko itzulpenak ere gordeko ditu, behar duenari (gurasoei batez ere), hala eskatuz gero, eskuratzeko aukera emateko.

Klaustro, Eskola kontseilu eta batzorde eta mintegi guztiak euskaraz eginen dira, eta hizkuntza horretan jasoko dira haien aktak. Ikastetxeak gurasoak bultzatuko ditu, haien ordezkariak aukeratzeko garaian, euskaldunak hauta ditzaten aipaturakoa bideragarri egin ahal izateko.

Ikastetxeko inprimaki eta agiriak euskaraz idatzita egonen dira; ikasleen gurasoei zuzenduta dauden matrikula inprimakiak, buletinak, ziurtagiriak eta bestelako komunikazio orrietan, bi motatako eredu eginen dira: bata euskaraz eta beste bi hizkuntzatan idatzita, euskarari lehentasuna emanez.

Kontratuak eskaerak ordainagiriak kontabilitatea, tampoi eta zigiluak, logotipoak eta bulegoko materiale eta lan guztiak euskaraz eginen dira.

Nafar Gobernuari nahiz bestelako erakunde ofizialei igorritako posta euskaraz idatziko da. Halaber handik jasotakoak ere euskaraz idatzita egon beharko du; beraz, ez da erdara hutsez idatzitako gutunik onartuko. Gurasoei eta orokorrean herritarrei bidalitakoa euskaraz edo bi hizkuntzatan idatziko da; era berean, ikastetxeak herritarrak bultzatuko ditu, guri bidalitako gutun eta eskaerak euskaraz egin ditzaten.

Eskolak ikastalde bakoitzeko famili euskaldunen zentsua gaurkotuko du urtero, haiekiko harreman guztiak, idatziak nahiz ahozkoak, euskaraz egin ahal izateko.

2.2. MATERIALE ETA BALIABIDEAK

Orokorrean erabiltzen diren programazioak, azterketak, ebaluaketa txostenak, apunteak, testuliburuak, gidaliburuak eta ikaslearekin erabiltzen diren materialeak euskaraz idatzita egonen dira.

Euskaraz argitaratzen diren liburuak, ikusentzunezko materialeak eta sopo-
te informatikokoak eskolaren jardunerako egokiak diren heinean, gure liburutegian
izanen ditugu.

Beste hizkuntzetan argitaratzen direnak ere, hizkuntza horien irakaskuntza-
rako baliagarriak izateagatik, edo bere balio didaktikoa ezagututa, euskarazko pa-
reko bertsiorik existitzen ez delako, liburutegian egonen dira.

2.3. IRAKASLEAK:

Klaustroko irakasle guztiak euskaldun osoak izanen dira, eta haien bizitzako
iharduera guztietan euskaraz aritzeko gaitasuna edukiko dute, horretarako beha-
rrezkoak diren erregistro mota ezberdinak menperatuz. Era berean, irakasleak eus-
kararen aldeko jarreraren bultzatzaile eta euskal kulturaren hedatzaileak izanen dira.

Irakasleek, beren etengabeko prestakuntzaren barrenean, hizkuntzaren gaur-
kotze eta sakontzeari garrantzi handia emanen diete. Ikastetxeak urtero irakasleen
behar horiei erantzungo dieten prestakuntza saioak antolatuko ditu, eta kanpoan
antolatzen diren ikastaroetan parte hartzeko erreztasuna emanen die.

2.4. BESTELAKO LANGILEAK

Administrazio eta zerbitzuetako langileek, nahiz ekintza osagarrietakoek,
haien lana euskaraz ongi egiteko behar den hizkuntza maila izanen dute. Haurre-
kin harreman zuzenak dituztenek, hizkuntzaren erregistro ez formalak menpera-
tuko dituzte.

Irakasleak eta bestelako langileak, hala ikasleekin, nola haien artean, beti eus-
karaz mintzatuko dira, bai eskolaren areto guztietan eta baita inguruan ere, ikasle-
ak etengabe euskararen erabilerara bultzatuz.

2.5. IKASLEAK:

Euskara ikasleak irakaskuntza integrala lortzea ahalbidetuko duen hizkuntza
izanen da. Ikasleek euskararen bidez helduko dira haien garapen kultural, pertso-
nal nahiz sozial osora.

2.6. GURASOAK

Ikastetxeak gurasoak jabeaziko ditu seme-alaben motibaziorako etxearen
jarrerak duen garrantziaz eta euskararen erabileraz kezka eta interesa adierazi de-
zaten bultzatuko ditu. Era berean, euskara ikas dezaten animatuko ditu.

Ikastetxeak gurasoak motibatu eta jabearaziko ditu, haurren eskolaz kanpoko jardueretan euskarazko harreman sarea ahalik eta aberatsena lortzeak duen garrantziaz

ahal delarik, guraso erdaldunekin mintzatzeko eremuak mugatuko ditu, eta aukeratutako espazioak besterik ez erabiltzea gomendatuko die, jolastokian eta pasiloetan erdara nagusitu ez dadin.

2.7. INGURUNEA

Eskolak haurrei auzoan mota guztietako zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakundeekin harremanetuko da, haurren eta gurasoen nahia asetzeko moduko aukera ugari eta kalitatezkoa eskaini dezaten, euskara maila duina ziurtatuz.

3. MEMORIA

Ikastetxearen sorreratik ikasleak euskararen erabilerara bultzatzeko maisu-maistra askok egindako ahalegin ikaragarriak ahaztu gabe, 2000 urtetik hona egindakoa ekarriko dugu gogora, orduz geroztik lan horiek, era planifikatuan egiten saiatzen ari garelako.

Era berean urte hauetan guztietan, Euskara Zerbitzuaren laguntza jaso dugu gure egitasmoak gauzatu ahal izateko.

3.1. 2000/2001 IKASTURTEA:

Euskararen erabilera plana (ikus I ERANSKINA).

- “Euskararen Erabilera sustatzeko Estrategiak” ikastaroa klaustrokide guztientzat.
- Euskara Batzordearen sorrera.
- “Euskararen egoera Sanduzelain”: datu bilketa eta diagnostia.

3.2. 2001/2002 IKASTURTEA

Euskararen erabilera plana (ikus II. ERANSKINA).

- “Erabilera sustatzeko estrategiak” klaustrokide guztientzat.
- Gaurkotze Gramatikala” eta “Haur jolasak” ikastaroak klaustrokide guztientzat.
- “Haur Jolasak” ikastaroa guraso eta eskolaz kanpoko hezitzaileentzat Sortzenen “Euskaraz mintza” programaren barruan.

- “Jolastordu monitorizatuak” jarduna “euskaraz mintza” programaren barrenean.
- Erabileraren neurketa eta emaitzak.

3.3. 2002/2003 IKASTURTEA.

Euskararen erabilera plana (ikus III. eranskina)

- “Erabilera sustatzeko estrategiak” klaustrokide guztientzat.
- “Jolastordu monitorizatuak” ikasleentzat
- Euskara Batzordea **Lan Talde**” bihurtu zen.

Oharra: Hau ikastetxeak egin duen apustu handia izan da, Irakasleriaren etengabeko prestakuntzari eman beharreko ordurik gehienak, euskararen erabilera areagotzeko ekintzak antolatzen eman baitute zenbait irakaslek. Honek esan nahi du denbora lortu dugula ekintza horiek prestatzeko, eta aurreko ikasturte guztietan ikasitakoa praktikan jartzeko.

Euskararen Lan taldearen lana

- “Tutoretzak” ikasle handi eta txikien artean.
- “Erabileraren neurketa” autoebaluaketa fitxa.
- Pasabide eta komunetako kanpaina.
- “Jolastokirako jarduerak” 6. mailako ikasleek txikientzat antolatuta.

3.4. 2003/2004 IKASTURTEA:

Euskara Lan taldearen lana (ikus IV. eranskina)

- “Jolastordu monitorizatuak”
- Tutoretzak ikasle handi eta txikien artean.
- “Sanduzelai Euskaraz Blai” erabilera kanpaina.
- “Sanduzelai Euskaraz Blai” jardunaldiak (hiru mintzaldi irakasleentzat gurasoei ere irekita).
- “Takolo, Pirritx eta Porrotx” pailazoen emanaldia.
- Gurasoentzako argitaratutako foiletoa, euskararen erabilerara bultzatzeko aholkuak bilduz. (ikus 6. eranskina)
- “kontu Txikiak” ikastaroa gurasoentzat, “euskaraz mintza” programaren barruan.

4. EGITASMOAK

DATOZEN URTEEI BEGIRA:

Bistan denez gauza asko egin dira eta egiten dira urte hauetan. Batzuk urtero errepikatzen dira, eta nolabaiteko instituzionalizazioa lortu dute. Haiekin jarraitzeko asmoa dugu, hizkuntzaren erabilerarako baliagarriak diren heinean.

Baditugu, ordea, gauzatu nahi genituzkeen proiektu berriak, ekiteko kemena eta behar den dirua lortzen badugu behintzat:

4.1. EGONALDIAK ARANTZAN:

Ikastetxe honetako klaustroak aurtengo ekainean 3. mailako ikasleen bi taldeak nahastea eta talde orekatuagoak osatzea erabaki du.

Lortu nahi diren helburuen artean, hizkuntzari dagozkionak hauek dira:

- *Erabileraren “bultzatzaile” eta “oztopo” izan daitezkeen ikasleen proportzioa orekatzea.*
- *Euskaraz aritzen diren lagunen taldea zabaltzea.*

Arrazoi horiengatik, aurtengo urrian aste beteko egonaldia egingen dute talde horiek Euskara Zerbitzu horrek Arantzan duen egoitzan.

Egonaldi hauek errepikatzea irakasle tutoreen nahia eta egoera pertsonalaren menpean egonen da beti, baina aurtengo esperientzia ona bada eskola saiatuko da irakasleria bultzatzen hirugarren mailako ikasleek behin eta berriz errepika ditzaten datozen urteotan.

4.2. ALDIZKARIA:

Urtero eskola aldizkariaren ale bat argitaratzen da ikasturte bukaeran. Bertan ikastalde guztiek hartzen dute parte.

Aldizkariaren “filosofia” aldatu nahi da:

- Ardura gehienak 6. eta 5. mailako ikasleei eman.
- Maiztasuna eztabaidatu.
- Barneko edukiak aldatu eta haien gustuko sekzioak sortu.

4.3. IRRATIA:

Askotan hitz egin da Euskara Lan Taldean irratitari buruz eta bertako memoriari eta aktuari ikus daiteke.

Gure ikastetxeak ez du gelaz gelako megafonia sistematik. Horrek, programa grabatu ondorengo entzuketa saioak zailtzen ditu.

Teknologia Berrietan galdetu eta eskatu nahi dugu programen ediziorako behar den tresneria.

Hau guztia denboran gehiegi luzatuko balitz, Kasetetan grabatzen hasteko aukera astertuko genuke, eta gero entzuleen taldeari kasetea pasa.

Proiektua asko landu behar da: Edukiak, hizkuntz erregistroak, gidoiak nola egin, ahoskera eta entonazioa... Eta hizkuntza arloaren ordu asko eman beharko lirateke.

4.4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA:

Eskolak jarraituko du irakasleen prestakuntzarako egokiak diren ikastaroak eskolan bertan antolatzen (Gaurkotze gramatikala II) edo haien partehartzea bultzatzen (Freskatze...).

4.5. GURASOEN MOTIBAZIOA

Aurten argitaratutako foiletoari zabalpena gurasoeren artean bereziki eta aurreko urteetan hain arrakastatsuak suertatu diren ikastaroak errepikatzen saiatuko gara.

Euskara Lan taldea gela guztietako ikasleekin batera “Euskal kanten bilduma” osatzen ari da, lentren libreto bat egiteko eta, dirurik balego, disko bat editatu

eta horretarako propio egingo den festa batean gurasoei oparitzeko.ematen ari zaio. Hiru urtekoen

4.6. ERABILERAREN NEURKETA OROKORRA

Bi urte eta erdi pasatu dira Lehen neurketa orokorra egin zenetik. Bitartean neurketa partzialak egin dira noizbehinka: Batzutan leku zehatz batean bakarrik (pasabidean edo...); beste batzutan talde bakar bati.

Jakin badakigu neurketa hauek ez direla matematikoak, eta emaitzak kontu handiz begiratu behar direla. Hala ere, Aurreko baldintza beretan egiten saiatuko gara: Urte sasoi berean, leku eta ordu berberetan eta ahal delarik ikasgai bera egiten ari den bitartean...

Agian hiru urte nahikoa denbora izan daiteke aldaketa txikiren bat ematen ari den ala ez jakiteko.

1.- 2000/01. IKASTURTEAN EGINDAKOAREN MEMORIA

Ikasturte honen hasieran, euskararen erabilera indartzea genuen helburu eta gure egitasmoa burutzeko bi zutabetan oinarritu ginen:

1. Talde bikoizketak eta aho-hizkuntza / arte-hezkuntza tailerrak erabiltzea hizkuntza arloa sendotzeko (euskara).
2. Irakasleriak “Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak” ikastaro-mintegian parte hartzea.

Biak burutu dira eta jarraian zehaztuko ditugu prozesuaren xehetasunak eta egindakoaren balorapena.

1.1. Bikoizketak eta Tailerren antolaketa

UPOan azaldu bezala, bikoizketak eratzearen arrazoi nagusia, euskara bizkortzea zen. Ikasturtea bukatu denez, haiek, tutore eta espezialistek betetako galdeketen erantzunetan oinarrituz, ebaluatu nahi izan ditugu.

Ebaluazio honekin bikoizketak, hasieran lortu nahi genituen xedeak burutzeko, bide ona izan diren jakin nahi izan dugu:

- Euskara indartzea
- Talde txikiei esker, aniztasunaren trataera hobea lortzea.

Gure baliabideak kontuan hartuz bikoizketa mota hauek egin dira:

- Tutore – Espezialista: H.H.ko 3. maila (Ingelesa) / L.H.ko 1. eta 3. maila (Gorputz Heziketa)
- Tutore – Laguntzako irakaslea: L.H.ko 4. eta 5. maila
- Tailerrak: H.H. ko 3. maila / L.H.ko 1. eta 2. maila

Zehaztasun gehiago, ziklo bakoitzak egindako memorian agertuko dira.

Segidan ,lehen aipatu galdeketa aztertu ondoren, jaso ditugun zenbait ondorio adieraziko ditugu.

Irakasle gehienen ustez:

1. Talde txikiek banakako jarraipena egiteko aukera gehiago ematen dute.
2. Ikaslearen parte hartzea errazten du.
3. Ikaslearen arreta handiagoa denez, egin beharreko lana hobe ulertzen du.
4. Aho-hizkuntza baldintza hobetan lantzen da.
5. Giro lasaiagoan lan egiten da.
6. Orokorrean, lortzen diren etekinak handiagoak dira.

Laburbilduz, bikoizketen balorapena baikorra izan da, batez ere, tutore-espezialista motakoa.

Bestalde, bikoizketak direla eta, irakasleriak beste ikasgai batzuk prestatzeko denbora gutxiago duela egiaztatu du.

Gainera, koordinatzeko dauden zailtasunak kontuan harturik, batez ere tailerretan parte hartzen duten irakasleen artean eta tutore – laguntzako irakaslea motako bikoizketan, koordinazio hau egokia izan dadin, denbora gehiago beharko luketela adierazi dute.

1.2. “Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak” Ikastaro-Mintegia

Ikasturte hasieran, eskolako irakasle guztiok, Euskara Zerbitzuak antolatutako ikastaro-mintegi bat egin genuen. Ikastaroaren izenburua: “*Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak*”.

Ikastaro-mintegiak honako helburu hauek zituen:

- Hizkuntzaren erabileran eragiten duten aldagaiak identifikatu eta ezagutztea.

- Erabilera plana diseinatzea, hainbat erabaki hartuz eta ikaslearen hizkuntza ingurunea egituratzea.

Urrian sei mintzaldi entzun genituen honako gai hauen inguruan:

- ✓ “Eskola gizartean. Oinarri soziolinguistikoa” Iñaki Arrutik emana.
- ✓ “Erabilera plana aztergai” Anaida Agirre eta Karmele Perezen eskutik.
- ✓ “Euskararen sustapena ikastetxeetan giza-taldeka” Josune Alberdi eta Maribi Andrinuarekin.
- ✓ “Irakaslearen eginkizunak” Juanjo Agirrezabal eta Nerea Iriondok.
- ✓ “Euskararen Erabilera sustatzeko lan proposamenak, oinarrizko ideiak eta aplikazioak” Antton Amondarainekin.
- ✓ “Ikastetxea eta udalerraren arteko elkarlana” Rosa Ramosek eman zuena.

Honen ondoren Euskara batzordea osatu eta lana egiteko era diseinatu genuen.

Geroztik irakasleek ziklotan bilerak egin ditugu urtean zehar, Euskara Batzordea ere bildu egin da eta klaustro osoko bilkurak ere zenbaitetan egin ditugu.

Bilera hauetan jorratu ditugun gaiak honako hauek izan dira:

- Ikastaroan jasotako teorietan hausnartu eta sakondu.
- “Euskararen egoera Sanduzelai eskolan” datu bilketa eta diagnosia egin.
- “Euskararen Erabilera Plana”: Epe luzeko helburu nagusiak eztabaidatu, iritziak elkartrukatu eta erabaki.

Oharra: Honekin batera ikastetxearen diagnosiaren emaitzak aurkezten dira.

FAMILIENTZAKO GALDE-SORTA / CUESTIONARIO PARA LAS FAMILIAS

1. Etxeko helduen hizkuntza GAITASUNA (gurutze bat jarri)

Competencia lingüística de los adultos de casa. (marcar con una cruz)

Biak euskaldunak/Los dos euskaldunes

Bat euskalduna/Uno euskaldun

Biak erdaldunak/Los dos castellano-parlantes

Beste egoera/Otra situación (especificar)

2. ERABILERA: familia-ikastetxearen arteko ohiko komunikazio hizkuntza.

(bakoitzean Otik 9ra jarritz)

UTILIZACIÓN: lenguaje de comunicación entre la familia y el colegio. (calificar de 0 a 9)

Euskaraz/**Euskara**

Gaztelera/Castellano

3. Etxean erabiltzen diren euskarazko KOMUNIKABIDEAK (gurutzea jarritz)

MEDIOS DE COMUNICACION en Euskara que se utilizan en casa (marcar con una cruz)

	Askotan <i>Muchas veces</i>	Batzutan <i>A veces</i>	Inoiz ez <i>Nunca</i>
Egunkaria /Periódico			
Haur aldizkariak /Revistas infantiles			
Telebista /Televisión			

Jarraipena
Continua





4. Etxean diren euskarazko TESTUAK
TEXTOS en euskara que hay en casa

	Zenbat <i>Cuantos</i>
Euskal hiztegiak /Diccionarios en euskara	<input type="text"/>
Entziklopedia-kontsulta liburuak /Enciclopedia-libros de consulta	<input type="text"/>
Euskarri informatikoa (Aplikazioak, jokoak..) /Soportes informáticos (aplicaciones, juegos...)	<input type="text"/>
Bideoak (pailazoak, filmak, dokumentalak...) /Vídeos (payasos, películas, documentales...)	<input type="text"/>

	Gurutzea jarri <i>Marcar con una cruz</i>	
	10 baino gutxiago <i>Menos de 10</i>	10 baino gehiago <i>Más de 10</i>
Testu literarioak (narrazioak, olerkiak...)/ <i>Textos literarios (narración, poesía)</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Testu teknikoak (natura, zientzia gaiak.)/ <i>Textos técnicos (naturaleza, temas de ciencia)</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Musika euskarazko hitzekin/ <i>Música con letra en euskara</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

5. Seme-alabak euskaraz egiten diren IKUSKIZUNetara joateko maiztasuna
*Frecuencia con la que vuestros/as hijos/as acuden a las **ACTIVIDADES** que se hacen en **euskara** (gurutzea jarritz)/(marcar con una cruz)*

	Askotan <i>Muchas veces</i>	Batzutan <i>A veces</i>	Inoiz ez <i>Nunca</i>
Filmak /Películas	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Antzerki saioak /Teatro	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Pailazoak /Payasos	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

6. Seme-alabek ESKOLAZ KANPOKO iharduerak egiten duten hizkuntza

	Euskera	Beste hizkuntza <i>Otra lengua</i>
Gurutzea jarri <i>Marcar con una cruz</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kirola /Deporte	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Musika /Música	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Beste batzuk /Otros	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

1. 2001/02. IKASTURTEAN EGINDAKOAREN MEMORIA

1.1. EUSKARAREN ERABILERAREN SUSTAPENA

Ikasturte honen hasieran, euskararen erabilera indartzea genuen helburu eta gure egitasmoa burutzeko hainbat ekimen programatu genituen :

- a) Talde bikoizketak eta aho-hizkuntza / arte-hezkuntza tailerrak erabiltzea hizkuntza arloa sendotzeko (euskara).
- b) Ikasturte osoko jostaldietarako Haur Jolasak lantzeko monitoreak kontratatzea.
- c) Irakasleriak zenbait ikastaro eta mintegitan parte hartzea:
 - “Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak” ikastaro-mintegia.
 - “Haur Jolasak” ikastaroa.
 - “Gaurkotze gramatikala” ikastaroa.

Hirurak burutu dira eta jarraian zehaztuko ditugu prozesuaren xehetasunak eta egindakoaren balorapena.

A) *Bikoizketak eta Tailerren antolaketa.*

UPOn azaldu bezala, bikoizketak eratzearren arrazoi nagusia, euskara bizkortzea zen.

Gure baliabideak kontuan hartuz bikoizketa mota hauek egin dira:

- Tutore – Espezialista: H.H.ko 2. eta 3. mailak (Ingelesa) / L.H.ko 1. eta 4. mailak (Gorputz Heziketa)
- Tutore – Laguntzako irakaslea: L.H.ko 5. eta 6. mailak.
- Tailerrak: H.H.ko 3. maila / L.H.ko 1. eta 2. maila

Zehaztasun gehiago, ziklo bakoitzak egindako memorian agertuko dira.

B) *Monitorearen lana jolasaldietan.*

Ikasturte osoan, eta Nafar gobernuko dirulaguntzarekin, monitore bat izan dugu, bi orduz lanean, 10 eta erdietatik, 12 eta erdiak arte. Lehenengo orduan, jolasostokian egon da, bi haur taldeen jolastorduetan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza). Bigarrena, Haur Jolasen fitxategi aberats bat ekoizten egon da, beste eskoletako begiraleekin batera, Sortzenek koordinatuta.

Honen helburu nagusia, **haurren hizkuntza ohitura aldatzea** izan da eta, begiraleak berak aitortu digunez, ez da bete betean lortu, zenbaitetan, jolasean erabat murgildurik eta lagunekiko eztabaida beroan, erdarara jo baitute ikasle batzuk. Honek ez du esan nahi bide okerretik goazenik, aitzitik, Ikasleen jolas-hizkuntza ohitura oso barneratuta dutela, eta norabide horretan ekin eta ekin beharko dugula adierazten digu.

Orokorrean gustura aritu dira ikasleak, nahiz eta jolastorduaren hasieran zenbait egunetan, ikasleren bat kexuka hasi, eta patioaren beste puntan “galdu”.

Haur Hezkuntzako talde bakoitza lau egunez behin ibili da monitorearekin, (ez baititu hiru urtekoak hartu); baina lehen hezkuntzan maiztasuna askoz txikiagoa izan da, ia hiru astez behin. Gutxiegi iruditzen zaigu, benetan hizkuntz ohiturak aldatu nahi baditugu. Maiztasuna areagotzeko zerbait pentsatu beharko genuke.

C) *Irakasleriak egindako ikastaro eta mintegiak:*

1. **“EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK”**

Ikasturte hasieran, eskolako irakasle guztiok, Euskara Zerbitzuak antolatutako ikastaro-mintegi bat egin genuen. Hau zen ikastaroaren izenburua: *“Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak”* .

Ikastaro-mintegiak honako helburu hauek zituen:

- Hainbat ikastetxetako esperientzi zein ikerketen berri ematea iazko jardun teorikoak jarraibide praktikoa izan dezan.
- Parte hartu duten ikastetxeen arteko elkarlana sendotzea.
- “Erabilera planaren” interneten bidezko foruma sortzea.

Irailean sei mintzaldi entzun genituen. Honako hauek izan ziren jorratutako gaiak eta hizlariak:

- ✓ “Ikastetxeko hiru hizkuntzen trataera” (Rosa M^a Arano).
- ✓ “Euskararen erabilera ez formala gelatik at” (Elena Berazadi).
- ✓ “Ahozkotasanaren lanketa Hezkuntza Proiektuan” (Jose Ig. Martinez).
- ✓ “Komunikabideen erabilera hizkuntza ez formalerako” Luis M^a Puertas.
- ✓ “Hizkuntza Planaren sistematizazioa” (Uri Ruiz Bikandi).
- ✓ “Ikastetxearen antolaketa: Espazio-denbora eta baliabideak” (Aitor Etxarte).

Honetaz gain, beste bi ikastaro egin ditugu:

2. “GAURKOTZE GRAMATIKALA”

Ikastaroa SANDUZELAI ikastetxean bertan burutu dugu eta hamazazpi irakaslek hartu dugu parte. Berandu samar erabaki genuenez gero, gure programazioari egokitu behar izan diogu ikastaroa eta horrexegatik luze egin da denbora aldetik, urrian hasi eta otsailean bukatu baiKenuen.

Ikastaroaren iraupena hogeitorturikoa izan da eta hauexek izan dira landutako ikasgaiak:

✓ Euskaltzaindiaren arauak:

Horren garrantzia handikoak diren arau hauek ezagutzea izan zen helburua.

✓ Nafarreraren ezaugarri nabarmenenak:

Bertako hizkuntza eredu nabarmenenak ezagutzea eta erabilpena bultzatzea izan du helburu.

✓ Errakuntzen zuzenketa:

Gaztelaniaren eraginez sortzen diren hainbat eta hainbat akatsen zuzenketa. Langai honetan, bereziki haurrengandik jasoak diren akatsen lanketa burutu da.

Gure balorazio orokorra oso ona izan da eta orain atalez atal argudiatuko dugu honako baieztapena:

➤ Irakaslearen lana:

Irakaslearen lana oso egokia iruditu zaigu. Alde batetik, landutako ikasgaiak hargitx ongi menperatzen zituelako eta, bestetik, irakasteko modua aktiboa izan delako, gure parte hartzea bultzatuz.

Ikastaro egunak aldatu behar izan genituen eta berak ez zuen inongo eragozpenik jarri gure beharretara egokitzeke.

➤ **Ikasgaiak:**

Jorratutako ikasgaiak oso interesgarriak eta gaurkotasun handikoak izan dira. Oso baliagarriak gure euskara maila hobetzeko eta, horretaz gain, zeinbait atal, gelan zuzenean lantzeko proposak.

Etorkizunari begira, beste ikasturteren batean, antzeko ikastaroren bat antolatzeari komenigarria deritzogu.

3. “HAUR JOLASAK”

SANDUZELAI ikastetxean bertan egin dugu ikastaro hau. Lau saiotan egindako hamabi orduko ikastaro trinkoa izan da, urtarrilaren 15, 17, 22 eta 24an burutua, hiru orduko saioetan. Hamasei irakaslek hartu dugu parte.

Jolas tradizionalak izan dira landu eta ikasi ditugunak, *partehartzea* errazten dutelako batetik eta, bestetik, gaur egun erabiltzen ez direnez, ez dutelako haien inguruan *oxtopo bihur litekeen ohitura linguistikorik*.

Ikastaroak honako helburu hauek zituen:

- ✓ **Jolastokian edo gelan erabil daitezkeen jolasak ezagutzea:** Jolas tradizionalak eta errazak izan dira, ezer gutxi, edota batere materialik behar ez dutenak.
- ✓ **Haurrei, hizkuntzaren erregistro hurbilak, “ez formalak” eskeini ahal izatea:** Jolasaren bidez landu daiteke, gelan tokirik ez duen hizkuntzaren arlo garrantzitsu hau.
- ✓ **Konpetitibitate bultzatzen ez duten jolasetan trebatzea:** Elkarlana beharrezkoa egiten duten jolasak landu dira batez ere.

Balorazioa **oso ona** izan da, bai landutako gaiaren egokitasunagatik, eta baita irakaslearen trebetasunagatik ere. Jarraian azalduko ditugu bi puntu hauek:

- **Irakaslearen lana:** oso aktiboa izan da, uneoro partehartzea bultzatuz. Ongi menperatzen zuen gaia, eta jolastuz irakatsi dizkigu jolasak. Guk geuk arrunt ongi pasatzeaz gain ederki barneratu dugu jolas bakoitzaren nondik norakoa. Etengabe ohartarazten zigun aldaera posibleez, jolasaren egokitasunaz haurren adinarekiko eta abar.

Ikasgaiak: Lehen aipatu bezala, bai gelan bai jolastokian, eta oso material gutxirekin (edo batere materialik gabe) erabil daitezkeen jolasak dira jorratu ditugunak, honek oso erabilgarri bihurtzen ditu gure lanaren edozein unerako.

Guzti honetaz gain, beste zenbait lan aipatu beharko genituzke:

Euskara batzordea gutxitan bildu bada ere, zikloetara eramán dira proposamen batzuk, eta bertan landu. Horren ondorioz, ziklo bakoitzean, haurrak euskaraz mintza daitezén, irakasleok erabiltzen ditugun **estrategiak** bildu, eta beste zikloi jakinarazi dizkiegu.

Euskararen erabileraren neurketa egin dugu, ikastetxe osoan: Patioan, sarrean, pasabideetan, komunetan, geletan,

Baita ere, ikasleen familietan, Euskararen agerketa, ezagutza eta erabileraren egoera zein den jakiteko inkesta bat.

Hauen emaitzak gehigarri moduan eransten dira oroitidatzi honetan.

1. 2002/03 IKASTURTEAN EGINDAKOAREN MEMORIA

1.2. EUSKARAREN ERABILERAREN SUSTAPENA

Ikasturte honen hasieran, euskararen erabilera indartzea genuen helburu eta gure egitasmoa burutzeko hainbat ekimen programatu genituen:

- d) Talde bikoizketak eta aho-hizkuntza / arte-hezkuntza tailerrak erabiltzea hizkuntza arloa sendotzeko (euskara).
- e) Ikasturte osoko jostaldietarako Haur Jolasak lantzeko monitoreak kontratatzea.
- f) Irakasleriak zenbait ikastaro eta mintegitan parte hartzea:
 - “Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak” ikastaro-mintegia.

Hirurak burutu dira eta jarraian zehaztuko ditugu prozesuaren xehetasunak eta egindakoaren balorapena.

A) *Bikoizketak eta Tailerren antolaketa.*

UPOn azaldu bezala, bikoizketak eratzearen arrazoi nagusia, euskara bizkortzea zen.

Gure baliabideak kontuan hartuz bikoizketa mota hauek egin dira:

- Tutore – Espezialista: H.H.ko 2. eta 3. mailak (Ingelesa) / L.H.ko 1. eta 5. mailak (Gorputz Heziketa)

- Tutore – Laguntzako irakaslea: L.H.ko 4. eta 6. mailak.
- Tailerrak: H.H.ko 3. maila / L.H.ko 1. eta 2. maila

Zehaztasun gehiago, ziklo bakoitzak egindako memorian agertuko dira.

D) *Monitorearen lana jolasaldietan.*

Ikasturte osoan, eta Nafar gobernuko dirulaguntzarekin, monitore bat izan dugu, bi orduz lanean, 10 eta erdietatik, 12 eta erdiak arte. Lehenengo orduan, jolastokian egon da, bi haur taldeen jolastorduetan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza). Bigarrena, Haur Jolasen fitxategi aberats bat ekoizten egon da, beste eskoletako begiraleekin batera, Sortzenek koordinatuta.

Honen helburu nagusia, haurren hizkuntza ohitura aldatzea izan da eta, begiraleak berak aitortu digunez, ez da bete betean lortu, zenbaitetan, jolasean erabat murgildurik eta lagunekiko eztabaida beroan, erdarara jo baitute ikasle batzuk. Honek ez du esan nahi bide okerretik goazenik, aitzitik, ikasleen jolas-hizkuntza ohitura oso barneratuta dutela, eta norabide horretan ekin eta ekin beharko dugula adierazten digu.

Orokorrean gustura aritu dira ikasleak, nahiz eta jolastorduaren hasieran zenbait egunetan, ikasleren bat kexuka hasi, eta patioaren beste puntan “galdu”.

Haur Hezkuntzako talde bakoitza lau egunez behin ibili da monitorearekin, (ez baititu hiru urtekoak hartu); baina lehen hezkuntzan maiztasuna askoz txikiagoa izan da, ia hiru astez behin. Gutxiegi iruditzen zaigu, benetan hizkuntz ohiturak aldatu nahi baditugu. Maiztasuna areagotzeko zerbait pentsatu beharko genuke.

E) *Irakasleriak egindako ikastaro eta mintegiak:*

1. “EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK”

Ikasturte hasieran, eskolako irakasle guztiok, Euskara Zerbitzuak antolatutako ikastaro-mintegi bat egin genuen. Hau zen ikastaroaren izenburua: “Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak” .

Ikastaro-mintegiak honako helburu hauek zituen:

- Ikastetxeko koordinazio pedagogikoa sustatzea
- Arlo ezberdinetako estrategien inguruan hausnartzea:
 - irakasleen formazioan,
 - hizkuntzen helburuetan,
 - ikastetxeko euskararen erabileran,

- hizkuntza erregistro ezberdinetan,
- guraso zein ingurumenarekiko zubiak eraikitzen.

Irailean sei mintzaldi entzun genituen. Honako hauek izan ziren jorratutako gaiak eta hizlariak:

- ✓ **Tratamiento integrado de las lenguas. Una experiencia en la Comunidad Valenciana.** Montserrat Ferrer. Universitat Jaume I. (Castelló).
- ✓ **Ahozko Curriculuma eraikitzekeo diseinua.** Meltxor Artetxe. Ikastolen Federazioko Pedagogia Arduraduna.
- ✓ **Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteen hizkera.** Kike Amonarriz. Soziolinguista eta Argiako Sustapen Saileko arduraduna.
- ✓ **Ikastolen Hizkuntza Proiektuaren oinarriak.** Itziar Elortza. Ikastolen Elkarteko hizkuntza aditua.
- ✓ **Ekoizpen idatzia.** Iñaki Biain. Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (Irungo Berritzegunean).
- ✓ **Ikastetxeetako esperientziak.**

1.2. EUSKARA LAN TALDEAK EGINIKO LANA

EUSKARA LAN TALDEA	
TALDEKO PARTAIDEAK: ziklo bakoitzeko partaide bina.	
EGUTEGIA: Urtarrila (8, 22, 29), otsaila (5, 12, 19), martxoa (12, 19), maiatza (7, 14, 21, 28)	
HELBURUAK	
1. Ikasleen artean euskararen erabilera areagotzeko (geletan, pasabide eta komunetan, jangelan edota jolastokian) ekimenak programatzea. <i>(Gelarako hiru jarduera, pasabide eta komunetarako jarduera bat, jangelarako beste bat, eta jolastokirako berriz, bi.)</i>	
2. Egindako lana ikastetxeko gainerako irakasleei jakinaraztea.	
HELBURUEN EBALUAZIOA	
1. Helburua: ikasleen artean euskararen erabilera areagotzeko ekimenak.	
Berariazko ekintzak	<ol style="list-style-type: none">“Tutoretzak” 3 saio proposatu genituen: 2 hiztegi lana eta ahots ozeneko irakurketa bat. Ez dugu dena egiteko betarik izan. 1. hiztegi lana Martxoaren bukaeran egin zen, eta bigarrena orain maiatza-ekainean burutzen ari da.“Erabileraren neurketa” Ziklo bakoitzak ikasleen adinari egokitutako fitxa erabili du eta gutxi gora behera denak erabiltzen ari gara.“Pasabide eta komunetako kanpaina” Korrika zetorrela probestuz, proposatu bezala burutu da. Ikastetxe osoa kartelez beteta utzi dugu.“Jangelarako jarduera bat” Pasabide eta komunetako kanpaina barruan jantokirako egindako kartel pare bat kenduta, ez da ezer berezirik egin.“Jolastokirako jarduerak” 6. mailako ikasleek antolatutako jolasak, haur txikiei zuzenduta. Atzerapenarekin baina hila-bete honetan jolasak hasi dira. Esan beharra dago 6. mailako ikasleek gogoz eta ilusioz beterik ekin diotela haur txikientzat jolasak antolatzeari. Haur txiki dezente hurbiltzen zaizkie.

Ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Helburua, ikasleen artean euskararen erabilera areagotzea izanik, inoiz ez da erabat lortuta egonen. ✓ Hori lortzeko ekimenak programatzea genuen helburu, eta horretan lorpenak nabariak izan dira gure ustez: gelerako bi ekimen programatu eta burutu ditugu (hiru proposatu genuen, programatzeaz gain eskola osoari eginarazteak dakarren lana jakin gabe.); Pasabide, komun eta jantokirako bat proposatu eta burutu dugu; eta jolastokirako berriz bat, orain arrakastaz gauzatzen ari dena.
Hobekuntzarako proposamenak	<p>Heldu den urterako lanean jarraitzeko beharra ikusten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Alde batetik, arrakastatsuak izan diren jarduerak errepikatuz eta, nolabait esateko, instituzionalizatuz. – Beste aldetik, ikastetxearen areto guztietan euskara hurreman hizkuntza izan dadin, proposamen berriak eginez. <p>Honetaz gain, bi proposamen hauek egin nahi ditugu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Nola edo hala erabileraren neurketak egin behar ditugu, bide onetik goazen ala ez jakiteko. 2) Irakasleen hizkuntza ezagupenak, sakondu eta gaurko-tzea komenigarria ikusten dugu.
2. HELBURUA: Egindako lana gainerako irakasleei ezagutaraztea.	
Berriazko ekintzak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hurrekin aurrera eraman diren ekintzak, hasieran erabaki genuen bezala, antolatu ahala, ziklo bileretan jakinarazi zaizkio irakasleriari; denon artean eraman baititugu aurrera. 2. Beste guztia ere hasieran esan bezala, bukaerako bi saioetan, zikloen bidez azaldu diegu.
Ebaluazioa	✓ Egokia deritzogu egindakoari.
Hobekuntzarako neurriak	1. Horrela jarraitzea proposatzen dugu.
LAN TALDEA: BALORAPENA ETA HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENAK	
<ol style="list-style-type: none"> 1. Gustura egon gara lanean, eta gure ustez, egindako lana baliagarria suertatu da eskola osoarentzat. 2. Heldu den urtean jarraitzea komenigarria ikusten dugu. 3. Hobekuntzarako proposamenak aurrean egin ditugu. 	

SANDUZELAI IKASTETXEA

EUSKARAREN ERABILERA PLANA

2003KO OROITIDATZIA

1. Materiala eta baliabideetan aurten erositakoak, “Musika hitzak eta irudiak” bi liburu eta “Euskal doinu enblematikoak” 4 CD izan dira. Jakina da euskal eskoletan zer beharrezkoa den euskal folklorea: kantak, dantzak, jolasak, ... Materiale hauen erabilera ez da aurten agortuko; aitzitik: luzaroan, adin ezberadinetako haurrekin gelan, jolastokian, eta toki ezberdinetan baliagarri suertatuko zaizkigu.

2. Irakaslegoarengan pentsatu dugunean, gure prestakuntza osatuko zuen gaia aukeratu dugu: “Haurren euskararen erabilera gelatik kanpo” bertan sakondu eta ahal den neurrian praktikara hurbiltzeko. Hizlariak, ezagutzen ditugunen artean, horretara gehien egokitzen direnak iruditu zaizkigu. Lehenengo mintzaldia, Iñaki Arrutik emana, orokorra izan da, eta gaiaren zergatia eta bere kokapena gure lan jardunaren barruan argitu digu. Beste bi mintzaldiak zehatzagoak edo espezifikagoak izan dira: bata haur txikien irakasleentzat, Rosa Ramosek emana, haur hizkera, kantak, esaerak, jolasak, ... eta hauek erabiltzeko baliabideen berri emanez. Bestea berriz gaztetxoek irakasleei zuzenduta izan zen, eta Asisko Urmenetak eman zuen. Bertan, adin batetik aurrera, haurren behar komunikatiboak nola aldatzen diren; nola hizkuntza eredu irakaslea izatetik, goi mailako ikasle handiak izatera pasatzen diren; eredu edo “klitxe” ofiziala gainditu eta transgreditzeko beharra; Nola sortzen den gaztetxoek arteko argota; irakasle eta gurasoen eginbeharra horren aurrean,...

Esan behar da guraso elkarteko batzordeko kideak ere gonbidatuak izan direla, eta mintzaldiak arrakasta handia izan dutela bai irakasle eta baita gurasoen artean ere.

3. Herri kirolen inguruan esan behar da, goiko mailetako ikasleek oso pozik hartu zutela ekimen hau, ez bait zuten haien burua ikusten haur txikiak bezala, jolasak egiten. Kirolak dakarren lehiak erakartzen ditu. Heldu den urterako, bigarren zikloko ikasleei zabaltzea pentsatzen ari gara.

4. Haurren jolaserako hainbat material beharrezkoa erosi da: Sokasalto aritzeko sokak, baloiak, ... etengabe erabiliko ditugu.

1. MATERIALA ETA BALIABIDEAK:

Helburua: Euskararen erabilerarako baliagarriak diren liburu, disko, bideo zintak eta euskarri informatikoko material berriez liburutegia hornitzea, eta irakasleriari jakinaraztea.

Erositako materiala:

- Musika, hitzak eta irudiak I eta II. Bi liburuak
- Euskal doinu enblematikoak (4 CD)

2. IRAKASLEAK

A) **Helburuak:** Haurren ahozko era bilerarako estrategiak jasotzea eta ahalik eta lasterren praktikan jartzea.

Jarduera: Haur jolasetan eta gazteen hizketan adituak diren pertsonen mintzaldiak.

Egindako mintzaldiak:

– Haurren garapen komunikatiboa: Familia, eskola, jarduera osagarriak.
Hizlaria: **Inaki Arruti.**

– Gaztetxoek hizkuntza beharrak: Gazte hizkera, argota...

Hizlaria: **Asisko Urmeneta.**

– Haur txikien hizkuntza: Esamoldeak, kantak, jolasak, ...

Hizlaria: **Rosa Ramos.**

3. IKASLEAK

A) Helburuak:

– Haurrak erregistro ez formalekin harremanetan jartzea.

– Jostaldian euskararen erabilera gero eta handiago izatea.

Jarduera: “Jolastordu monitarizatuak” (Sortzenen programa).

B) **Helburuak:** Haur handiak jolasen bidez eta euskaraz txikiekin harremanetan jartzea eta txikiek euskal eredu gisa handiak ezagutzea.

2003ko EUSKARA LAN TALDEA

2003ko urtarrilaren 8an Euskara lan taldea eratu zen, honako sei irakasleok osatuta:

Lehenengo bilera aipatutako egunean izan zen, eta bertara partaide guztiok azaldu ginen.

GAI ZERREDA:

Egun horretarako eginbeharra, CAPeko aholkulariak adierazi zigun zuzendaritzaren bidez: Lan taldea osatzeko egin zen proposamenean agertzen ziren helburuak, zehaztea, Gauzatzeko errazak eta neurgarriak bihurtzea, hain zuzen. Programatuko diren jarduera edo ekimenen kopurua zehaztea ere proposatzen dute.

Bi dira lan taldeak hasieratik finkatu dituen helburuak:

1. Ikasleen artean euskararen erabilera areagotzeko (geletan, pasabide eta komunetan, jangelan edota jolastokian) ekimenak programatzea.

Hau da honetaz erabaki genuena:

Gela barruko euskararen erabilera areagotzeko hiru jarduera programatu behar ditugu: ikasleen guraso, aiton-amon euskaldunen erabilera aipatu zen; ikasle handi eta txikien arteko tutoretza sortzeaz eta baita erabilera neurtzeko metodoez ere mintzatu ginen.

Pasabide eta komunetan euskara bultzatzeko ekimen bat programatuko dugu (Beste ezer bururatzen ez bazaigu, kanpaina bat izan daiteke).

Jangelarako jarduera bat prestatuko dugu, eta jolastokirako ,berriz, bi.

2. Egindako lana, ikastetxeko gainerako irakasleei jakinaraztea.

Bigarren helburu honi buruz zera erabaki genuen: Ikastetxean beste hiru lan talde daude osatuta eta, elkarren berri emateko, taldeetako koordinatzaileen hainbat bilera daude aurrikusita; era berean Maiatzaren bukaerako bi asteazken erabiliko dira, urtean zehar taldeek egin duten lana ezagutarazteko.

Hala ere, eta euskararen erabilera eskasak sortzen duen kezka ezagututa, gure proposamenak programatu ahala klaustroko kide guztiei jakinaraztea pentsatu dugu eta, ahal delarik, lehenbailehen ikasleekin gauzatzea. Horretarako biderik eraginkorrena, zikloarenari deritzogu, ziklo guztietako partaideak baitaude lan taldean.

Honetaz guztiaz gain, eta bilera bukatu baino lehen, beste proposamen bat ere egin zen: irakasleen artean *euskararen zuzentasuna* bultzatzeko kanpaina egitea.

Horretarako, Lan Taldeak hizkuntza aholkulari egokia bilatuko du, eta hilabetero (edo agian hamabostean behin) irakasleok, ohituraz edo, gaizki esandako bi edo hiru esamolde zuzendu eta irakasle guztiei jakinaraziko die.

Honen ondoren bilera bukatutzat eman genuen.

EUSKARA LAN TALDEA

BILERAREN AKTA

03-01-15

Gela barruan egin beharreko hiru ekimeni buruz hitz egin zen batez ere.

1. TUTORETZAK

Proposamen hau, “irakurketa-idazketa” ikastaro-mintegietatik jaso izan da.

Ikastetxeko ikasle guztiei zuzendutako ekimena da. Gela guztiak bikoteka banatzen dira: Handien gela bat txikien gela batekin eta, gela barruan, ikasle handi bakoitza txiki baten tutorea izanen da. Haur kopuruak ez badira berdinak tutore batzuk bi tutoratu izanen ditu, edo alderantziz.

Lehenengo lana “Lexiko edo hiztegi lana” izango litzateke: ikasle txikiek aste bete lehenago bildutako hitz ezezagunen esanahia, tutoreek azaldu beharko diete. Hiruhileko honetan bi aldiz egitea pentsatu dugu.

Bigarrena “Ahots ozeneko irakurketa” Tutoreek, haiek aukeratutako ipuina irakurri beharko diete tutoratuei. Hurrengo hiruhilekoan egin daiteke, bi saio: bat, aukeratutako ipuina, bestea beraiek idatzitakoa.

Zehaztapen guztiak erabaki behar dira: eguna, ordua, iraupena, talde banaketa, bikoteen banaketarako irizpideak,

ERABILERAREN NEURKETA:

Honen inguruan hausnartzen egon gara. Goiko zikloan erabiltzen den ekimena da. Ezagutzen dutenek diotenez, zenbat eta gehiago inplikatu irakaslea; zenbat eta gehiago galdetu, kezkatu, animatu, orduan eta gehiago ahalegintzen dira ikasleak, eta emaitzak ere hobekiak dira.

Goiko zikloan, eta agian erdikoan ere, fitxa bat erabiltzen da, non eguneko une desberdinak jasotzen diren. Bertan ikasle bakoitzak behar den kolorea (gorria,

horia eta berdea) margotuko du, une eta toki horietan erabili duen hizkuntzaren arabera.

Haur hezkuntzan eta lehenengo zikloan pertsonai famatu baten puzzle handiak erabiliko dira: Euskara asko hitz egin duten egun bakoitzean pieza berria paratzeko eskubidea lortuko dute, ahalik eta puzzlea osatu arte.

Ezinbestekoa ikusten da gelan gaiaz eztabaidatzea.

Ikusten denez, lana bada. Hurrengo bileran jarraituko dugu.

EUSKARA LAN TALDEA

BILERAREN AKTA

03-02-06

Aurrekoetan bezala taldekide guztiok elkartu ginen.

Koordinatzaileak, aurreko astean CAP.eko aholkulariarekin izandako bilaren berri eman zuen, eta jarraian, aurreko egunetan aipatutako *tutoretzak* antolatzeari ekin genion. Hauxe da erabakitakoa:

Zikloetan tutoretzei buruzko apunteak (irakurketa-idazketa mintegikoak) irakurriko dira. Lehenengo jarduera, *hiztegi lana* izanen da.

Tutoreak (hemendik aurrera irakaslea), ikasle guztiei plana azalduko die: zer lan mota den; nola antolatuko den, saioa noiz, nola eta norekin egin beharko dute; egingo den ebaluaketa saioa;... .

Bi geletako irakasleak elkartuko dira eta haur bikoteak egingo dituzte. Ez dago ikasle kopuru bera duen gela pare bakar bat ere, beraz, guztietan bikoteekin batera hirukote bat edo bi ere egonen dira. Horretaz gain, saioaren eguna eta ordua erabakiko dute.

Martxoaren 17tik 21erako astean, tutoratuek ezagutzen ez dituzten hitzen zerrenda osatzeari ekingo diote, eta idatzita (transkribituta beharrezkoa bada) edukiko dute.

Hurrengo astean (martxoak 24-28) elkarketa egingo da. Ahal delarik, *tutorek* eta *tutoratuek* bi saio jarraian (100 minutu) beren irakaslearekin dutenean.

Tutoreak, *tutoratuen* gelara jaitsiko dira. Han erdiak geldituko dira haien bikoteekin, eta beste erdiak berriro gelara igoko dira nor bere tutoratuarekin (ikasle bakoitzak aldeztatik jakingo du nor den bere bikote eta gelditu edo igo behar duen).

Aurkezpenak egin ondoren (izena, adina, bizitokia, ...) lanari ekingo diote, eta hoge minutu edo ordu erdi bat emango dute *tutoreek*, *tutoratuek* galdetutako hitzen esanahia azaltzen. Ezingo dira etengabe hiztegiari begira egon: Hiztegi gutxi daudelako, *tutoratuak* aspertuko direlako eta hiztegiko azalpenak “ulertezinak” suertatzen ahal zaizkielako. Beraz *tutoreak* saiatuko dira hiztegia ekiditen eta hitz horri buruz dakitena azalduko dute. Hitza erabat ezezaguna egiten bazaie, hobe dute hurrengo zitarako ikasia eta prestatuta izango dutela esatea. Hala ere, ez dute isilik gelditu behar, eta hitz gehienei buruz zerbait esan beharko dute. (Ez legoke gaizki, *tutoreen* gelan entsaio moduko zerbait egitea alde zuzenetik).

Denbora bukatutakoan, *tutoreen* geletan dauden bikoteak *tutoratuen* geletara jaitsiko dira, eta beren gela-kideekin igoko dira. Honetan (mugimendu guztiak barne) saio oso bat erabiliko dugu (50 minutu). Hurrengo saioa ebaluaketarako izanen da.

Irakasleek, bikoteetan eta ziklo bileretan honen ebaluazioa egiten dute, eta Euskara Lan Taldeari nahi dituzten iradokizunak helaraziko dizkiote. Honek, hobeak kontutan hartuta, hurrengo saioa antolatuko du.

EUSKARA LAN TALDEA

BILERAREN AKTA

03-02-12

Taldekide guztiok elkartu gara.

Aurreko bileraren akta irakurri ondoren, honako hau aldatzea erabaki dugu:

Aktaren bukaeran, Euskara Lan Taldeak *Hiztegi lanaren* bigarren saioa antolatuko duela adierazten da. Horren ordez, ikasle bikoteak bi saioetarako finko mantentzeari ongi deritzogunez, bigarren saioaren antolakuntza bi geletako irakasleen eskuetan uztea iruditu zaigu egokiena. Irakasle guztiei maiatzaren azken hiru asten epearen barruan burutzea proposatuko diegu.

Hau argitu ondoren, pasabide eta komunitan euskararen erabilera areagotzeko ekimen bat pentsatu eta programatzeari ekin diogu. *Kanpaina bat* egitea bururatu zaigu. Egia da askotan ibili izan garela pasabideetan kartelak jartzen, baina agian aspaldian ez dugu kanpaina indartsu, orokor (ikastetxe osoan) eta luzerik egin.

Hauek dira proposatu ditugun pausuak:

- *Korrika* datorrela eta, geletan hitz eginen dugu eta, pixka bat kontzientzia-tu ondoren, kartelak, marrazkiak, mezuak eta leloak eginen ditugu (gelako mezu eta lelorik gustukoenak korrika txikiren egunean irakurriko dira).
- Marrazkiak eta leloak dituzten kartelak pasabideetan jarriko dira (eta baita komunetan ere, egokiak badira), batzuk paretetan eta ahal izanez gero, beste batzuk sabaitik zintzilika.
- Kanpainaren bukaeran erakusketa eginen da.
- Euskara Lan Taldeak. Lelo edo marrazki esanguratsuenak aukeratuko ditu eta, presupuestoa kontuan hartuta, bilatuko dio erabilera egokiena: inprentara eramán, pin bat egin,

Zenbait gauza gelditu dira zehaztu gabe:

- Ebaluaketa eginen ote den alde z aurretik eta kanpaina bukatutakoan (neurketa).
- Kanpainaren iraupena.
- Irauten duen bitartean kartelak eta mezuak aldatuko edo indartuko ote diren.
- Data zehatzak...

Ikusten denez, ez da oraingo proposamen itxia eta Euskara Lan Taldeak gehiago zehaztuko du. Hala ere, gainerako irakasleek dituzten iritzi eta iradokizunak ongi etorriak izanen dira.

EUSKARA LAN TALDEA

BILERAREN AKTA

03-02-19

Taldeko guztiak elkartu gara.

Pasabide eta komunetako kanpaina izan da mintzagai nagusia eta hauek dira hartutako erabakiak:

Kanpaina Martxoaren 31an hasiko da eta Apirilaren 11 arte iraungo du. Kanpaina korrika txikiaren festan bukatuko da.

Bi aste hauetan, geletako lana eginen da: Gaiaz hitz egin, leloak, mezuak eta marrazkiak egin eta paretetan jarri. Nahi duten tutoreek, Euskara arloko saio asko

“galdu” nahi ez badute, plastikan, eta beren programa barruan lantzen ari diren teknikaz egin ditzakete (iradokizuna besterik ez da).

Bi aste horietan zehar, paretetako kartelak bi edo hiru aldiz jartzea (aldatzea edo gehitzea) proposatzen dugu, eta ikasleei, noizean behin, beren pasabideetan nolako aldaketak izan diren begira dezaten esango diegu.

Korrikaren bukaerako festan, ikasleek haien lelo eta konpromezuak ozenki irakurriko dituzte eskola osoaren aurrean.

Apirilaren 14, 15 edo 16ean, tutore bakoitzak erabakiko du noiz eramango duen bere taldea ikastetxe osoa bisitatzera, gainerako pasabideetan dauden kartelak ikustera. Bisitaldiaren ondorengo unea, hausnarketarako aproposa izan daiteke.

Hori guztia borobiltzeko eta ikasleei kanpaina honek emaitza onik ekarri ote duen esateko, neurketa txiki bat proposatu beharko genuke:

Neurketa atezain batek egin beharko luke, haurrak pasabideetan dabiltzan orduetan eta bi aldiz: Lehenengoa martxoaren 31 baino lehen eta bigarrena, berriz, Apirilaren 14, 15 edo 16ean.

Maiatzaren 5ean, Euskara Lan Taldeak lelo, mezu edota marrazki egokienak aukeratuko ditu, eta haiekin zer egin erabakiko du.

Gai hau bukatuta, beste arazo honi ekin genion: “Jolastordu Monitorizatuak”:

Ikasle batzuei ez zaie jolastordu antolatua gustatzen. Batzuk galtzen dira nahita edo nahi gabe. Naroari, bere lan zail horretan laguntzeko asmoz, proposamen hauek egingo zaizkio:

- Agian komeniko litzaioke, taldeak tutorearekin jaistearen hasi arte.
- Toki egokia behar badu, berak aukera dezala (polikiroldegia, patio txoko bat,...).
- Haur Hezkuntzan maizegi egiten duenez, gela bakoitza bitan zatikatu dezake.

Jantokian eta patioan jardueraren bat antolatzea gelditzen zaigu. Hurrengorako uztea erabaki da.

Betiko orduan eta kide guztiak gaudelarik hasi gara.

Aurrekoan utzitako bi gaiak hartu ditugu berriro: Jolastokiko jarduera eta jangelakoa.

Jolastokiarekin zalantza asko izan ditugu: Jolas librerako leku eta ordua izaten delako; goizean dagoeneko aurrekoan aipatutako “Jolastordu Monitorizatuak” antolatzen direlako; eguerdian, bestelako jarduerak dituztelako eta ondorioz oso sakabanatuta daudelako...

Hori dela eta, egiten den proposamena froga moduan egingen da eta erabat libre ikasle guztientzat:

Seigarren mailako ikasleei, txikientzat jolasak antola ditzaten proposatuko diegu. Nahi dutenek bakarrik hartuko dute ardura hori, eta taldeka (3, 4 edo 5 ikasle).

Hiru edo lau talde aterako balira nahi duten jolasa antolatzeko aukera emanen genieke eta guk laguntza osoa eskaini: “Urtxintxaren” materiala, gure ikastaroen bideoa, soka saltorako kantak, ... Haiei zerbait bururatzen ez bazaie, material horietatik ideiak atera daitezke.

Antolatzailleek jolastokiko txokoren bat aukeratuko dute, eta zein ordutan egingo duten erabakiko dute. Gure proposamena, Haur hezkuntzako 2 eta 3. mailarako eta L.H.ko 1. ziklorako egitea da; eta eguerdian.

Haiek erabakitako egun eta ordu jakin batean hasiko dira. Txikien tutoreek jakinaraziko diete eta denok gustura badaude eta, nahi badute, errepikatuko dute. Dena ongi joango balitz, astean behin proposatuko genieke, ez gehiago.

Antolatzailleek jolas mota aldatzeko askatasun osoa izango lukete, egokia iruditzen bazaie (jakinarazten badigute, hobe).

Honen ondoren jantokiari buruz hitz egitera pasatu gara:

Ez dugu gehiegi zehaztu, gutxi ezagutzen dugun eremua baita, baina jakin badakigu, bertan erdara asko entzuten dela.

Azkenean zera erabaki da: Zaindarekin ados jarri behar dugunez gero, haiei gure asmoa azaltzea, eta ikasleek erdaraz gehien erabiltzen dituzten esamoldeak eman diezazkiguten eskatzea erabaki da.

Esaldi horien euskarazko ordezkioak egingen ditugu eta horiek ere pasabidetakoa kanpainaren barruan sartuko dira.

Honen ondoren bilera bukatutzat eman dugu.

Betiko orduan eta kide guztiak gaudelarik hasi gara.

Aurreko eguneko gaiari heldu diogu hasieran.

Marianek oso gainetik mintzatu da Patxirekin bainan bere taldean, (6.A) ikasleei, txikientzako jolasak antolatzeko aukeraz hitz egin die, eta ideiak oso harrera ona izan du ikasleen artean. Prest daude edozein gauza egiteko, eta ziur gaudete ongi egingo dutela. Hala ere, oraingoz, Korrika pasa arte uztea pentsatu dugu, gauza gehiegi ez pilatzearren.

Kanpainari buruz gauza bakar bat jakin nahi genuen: Jantokian erdaraz gehien erabiltzen diren esaldien zerrenda; bainan Mertxek ez digu oraindik eman. Beraz, jaso bezain laster kide guztiei jakinaraziko zaie.

Korrika Txikiaren antolakuntzarekin hasi gara gero.

Petoak egiteko, azkenekoan bezala, koloretako kartulinak erabiliko dira. Maila bakoitzak bere kolorea izanen du. ERNE! Bileran erabakitako kolore guztiak ez omen dira lortu eta, beraz koloreen zerrendak zenbait aldaketa ditu.

Kanta ezagutzeaz gain, bidali duten bertsoa ikastea proposatu dugu. Bertsoa zortziko txikia da eta guk jarri diogun doinua, “Xarmangarria zara” da. Lolak eskatuta, bileran bertan eta gure ahots “gardenen” laguntza bakarrarekin, kanta osoa grabatzeari ekin diogu. Lehenengo saiakeran erabateko onespina jaso du gure abestiak. Irakasleren batek kopiarik nahi izanez gero, Lolari eskatu beharko dio. Honek *dobainik* emanen dio, ez baikara oraindik sobera ospetsuak.

Bertsoaren letra, Marianek fotokopiatuko du, eta irakasle guztien kasileroan utziko du.

Ziklo bakoitzerako Korrikaren bideo eta kantaren kopia bana, gure zuzendari jaun txit langileari eskatzea pentsatu dugu, bainan bileratik atera orduko, kopia guztiak eginda zeuden.

Hau guztia eta pasabideetako kanpainaren zehaztasun guztiak ere, zikloetan gainerako irakasle guztiei adierazi behar diegu.

Puntu honetara iritsita, bilerari amaiera eman diogu.

Aurrekoetan bezala, betiko orduan eta kide guztien partaidetzarekin hasi zen bilera.

Hasieran, koordinatzaileak, eskolako lau lan taldeetako koordinatzaileek zuzendariarekin apirilaren 30ean izan zuten bileraren berri eman zuen. Hona hemen haren laburpena:

Maiatzan lau saio ditugu. Lehendabiziko biak (7 eta 14), egiten ari garena bukatu, erosketen zerrenda (beharrezkoa bada) zehaztu, memoria egin eta zikloko kideei azalduko dieguna prestatzeko erabiliko dira. Beste biak (21 eta 28), Lan taldeko partaide bakoitzak bere zikloko lankideei egin duguna azaltzeko erabiliko dira. Zenbait kasutan, kanpaldiak suertatuko dira, eta horregatik, zikloak berak antolatu beharko du bere denbora. Lan talde gehienetan nahikoa omen da ordu erdi batekin. Beraz ziklo bakoitzak erabakiko du zein egunetan (asteazkena, asteartea, ...) bilduko den.

Memoria egiteko, Patxi fitxa eredu batzuk prestatu ditu, lan talde guztiek antzekoa egin dezagun.

Horien arabera, hasieran, kideen izenak eta egutegia zehaztu ondoren, Lehenengo bileran zehaztutako helburuen aipamena egin beharko dugu, eta gero helburu bakoitzerako lan taldean antolatutako ekintzen deskribapena, horien ebaluazioa eta azkenik, geroari begira, hobekuntzarako proposamenik balego, azaldu.

Honen ondoren eta memoria egin baino lehen, kontutan hartu beharreko bi gauza aipatu ziren:

- Maiatzaren azken hiru asteetan, (12,...31) “*Hiztegi lana*”-ren bigarren saioa egin behar da. Irakasle guztiei oroitarazi behar diegu, aurrekoan bezala, haiek bikoteka antola dezaten.
- Seigarren mailako ikasleekin zer egin erabaki behar dugu, eta jolasak antolatu behar badituzte, lehen bait lehen tutoreekin eta haiekin hitz egin. Koordinatzaileak hitz egingo du Patxi eta Marianekin.

IV. ERANSKINA

1. 2003-04 IKASTURTEAN EGINDAKOAREN MEMORIA

HELBURUA : Ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzea.				
	Ekintzak	Ebaluazioa	Hobekuntzarako proposamenak	
A) Hizkuntza arloa (Euskara) bizkortzea.	Taldea banaketak eginez maila batzuetan.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ H.H.ko 3. mailan 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Datorren ikasturtean horrela jarraitzea komenigarria deritzogu. Talde kopurutsuetan beharrezkoa da bikoizketak egitea. 	
		<ul style="list-style-type: none"> ▪ L.H.ko 1. mailan 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1.mailako bi geletan eta Gorputz Heziketa saioan egin da, asteen behin. ▪ Talde txikiak egin dugu lana. Gehienbat hizkuntza landu da. ▪ Gure iritziz onuragarria izan da, talde txikia izanik aukera eman baitugu zenbait jarduerari etekin hobea ateratzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Datorren ikasturtean horrela jarraitzea proposatzen dugu.
	Tailerrak antolatuz.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ L.H.ko 6. mailan 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Taldeak kopurutsuak badira berriz ere 5. mailan banaketak egitea. 	
		<ul style="list-style-type: none"> ▪ H.H.ko 3. mailan 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Oso egokia eta beharrezkoak ikusten dira bai tailerrak bai ordutegia (arratsaldez). 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Datorren ikasturtean horrela jarraitzea proposatzen dugu.
		<ul style="list-style-type: none"> ▪ L.H.ko 1. zikloan 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kurtso honetan ere zikloko ikasle guztiak parte hartu dute antolatutako 5 tailerretan. ▪ Lau geletako haurrak harturik bost talde osatu genituen. Ikasle talde bakoitzak 4 edo 5 saio eman ditu tailer bakoitzean. ▪ Tailerrak aurreikusita zegoen bezala burutu dira. Lortu nahi genituen helburuak ongi bideratuak daude. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Datorren ikasturtean horrela jarraitzea proposatzen dugu.

HELBURUA : ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzea.		
Ekintzak	Ebaluazioa	Hobekuntzarako proposamenak
<p>B) Jolasaldia dinamizatu</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Jolasaldian haur jolasak landu. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Sortzenek duen programaren barruan eta Nafar Gobernuaren dirulaguntzarekin, hirugarren urtez, begirale bat izan dugu jolastorduetan, haurrek euskaraz jolasten ohitu daitezen. ▪ Begiraleak berak esan digu ikasleen jarrera aldatzen ari dela eta maizago euskaraz aritzen direla. Maiz entzun da “Euskaraz egini!” esaldia, nahi gabe erdarara jotzen zuenari zuzenduta. Halaber zenbait esamolde ikasi eta erabili dute lagunak animatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Orokorrean pozik gaude jarduerarekin, eta datozen urteetan jarraitzeko asmoa dugu.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Tutoretzak: gelan ahozko erabilera areagotzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikasturtean zehar hiru tutoretza egin dira: Lehenengoa, Hiztegi Lana izan zen: Txikiek ezagutzen ez zituzten hitzen esanahia azaldu zieten tutoreek. Bigarrenean, tutoreek, tutoratuentzako egokia den ipuina aukeratu eta irakurri behar zieten. Hirugarrenean, orde, haiek idatzitakoa kontatu eta oparitu zieten. Haur Hezkuntzan (3 eta 4 urtetan) lehenengo saioa egokitu behar izan zen, Aipatzen dituzten hitz bakarrak, ezagutzen dituzten gutxi horiek baitira. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Tutoretzak mantendu eta urtero errepikatzea proposatzen dugu, baina 3 eta 4 urteko haurrek oso hiztegi murriztu dute. Lantzen ari diren gaiari buruzko informazioa bilatu eta ematea proposatzen da.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Segidako ekitaldiak antolatu: 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bertso saioa. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Datorren ikasturtean, jaialdi bat antola daiteke, eta diskoa eta liburuxka banatu, haurrek gurasoei oparitu diezazkieten.
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Pailazoak/ antzerkia. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskara Zerbitzuak bi emanaldi eskaintzen baditu, saiatu behar dugu ziklo guztien interesetara egokitzen.

HELBURUA : Ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzea.		
Ekintzak	Ebaluazioa	Hobekuntzarako proposamenak
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kanpaina: pegatinak, txapak, kartelak... ▪ Segidako ekitaldiak antolatu: ▪ Mintzaldiak. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kanpaina egin zen, eta hurrek kartelak egin dituzte “Sanduzelai Euskaraz Blai” leloa erabiliz. Hala ere, haiekin ez dugu ez pegatinarik ez txaparik egin. Horren ordeaz, familientzako lagungarriak izan daitezkeen aholkuak biltzen dituen foileto bat argitaratu dugu eta laster banatuko da. ✓ Hiru mintzaldi egin ziren, oso interesgarriak hirurak, publikitate egin zen: Zuzendariaren eskutitza, programa osoa iragartzen zuen triptikoa eta, mintzaldi bakoitzaren aurrean beste orrialde bat. Hala ere, guraso gutxi etorri dira. Geroko ikastaroan guraso gehiagok hartu dute parte. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikasturte hasieran familia guztiei banatuko zaie. Hurrengo urteetan, hiru urtekoei banatuko zaie. ✓ Aipatutako foiletoaren bidez zabaldu beharko dugu mezua, ez da apenas gurasorik mintzaldietara hurbiltzen.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erabilera neurtu. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Geletan eta pasabideetan egin zen neurketa. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hurrengoan ikasturte hasieran eta bukaeran egitea proposatzen dugu.
HELBURUA : Irakasleriaren hizkuntza gaitasuna mantendu eta jasotzea.		
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza zuzenketa taldea sortu. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ez da zuzenketa talderik sortu, baina IVAPek bere aldizkarian bidaltzen dituen ariketak banatu ziren. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskaltzaindiaren “Arau berriak” lortu behar dira, eta IVAPen ariketekin batera irakasleen artean zabaldu.

HITZALDIAK

✓ **Euskararen erabilera.**

Uso del euskara : Factores que inciden en los escolares

Hizlaria: Iñaki Arruti *Ponente*

Martxoak 11 *Marzo*

Norentzat: Guraso guztientzat

Dirigida: A todos/as padres y madres.

✓ **Gazte hizkera : euskara lardaskatzeko manierak.**

El habla de los jóvenes : cómo profanar el euskara.

Hizlaria: Asisko Urmeneta *Ponente*

Martxoak 18 *Marzo*

Norentzat: 2. eta 3. zikloko gurasoentzat.

Dirigida: Padres y madres de alumnos/as de 2º y 3º ciclo

✓ **Nola lagundu etxetik euskararen eskurapenean.**

“Como ayudar desde casa a la adquisición del euskara”

Hizlaria: Rosa Ramos *Ponente*

Martxoak 23 *Marzo*

Norentzat: Haur txikien gurasoentzat.

Dirigida: Padres y madres de alumnos/as de Infantil y 1. de Primaria.

ORDUA: ARRATSALDEKO 17:00ak HORA

LEKUA: LIBURUTEGIA / BIBLIOTECA : LUGAR

“KONTU TXIKIAK” IKASTAROA

- Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoentzat (5 urtetik behera dituzten haurren gurasoentzat)
- *Para padres y madres de niños/as menores de 5 años.*

Matrikulazio epea: Martxoaren 11tik aurrera.

A partir del 11 de marzo.

LEKUA / LUGAR: IKASTETXEA

ORDUA / HORA: 15:00ETAN

MARTXOAK 25 MARZO

SANDUZELAI



Hizkera Ez formalia Neurtzeko Fitxa

TALDEAK	LEKUA ETA ORDUAK																							
	GELA		PASABIDEA				JOLASTOKIA				SARRERA PASABIDEA				KALEA									
	Goiza	Arra.	9:00	11:00	15:00	10:30	11:00	9:00	10:00	Eguer.	9:00	10:00	Eguer.	9:00	16:30									
Eu	Ga	Eu	Ga	Eu	Ga	Eu	Ga	Eu	Ga	Eu	Ga	Eu	Ga	Eu	Ga	Eu	Ga	Eu	Ga	Eu	Ga	Eu	Ga	
H. HEZKUNTZA																								
HH. 1.A	2	23	14	19																				
HH. 1.B	10	14	15	14																				
HH. 2.A	19	1	19	0																				
HH. 2.B	12	7	8	2																				
HH. 3.A	20	0	19	0																				
HH. 3.B	35	0	42	0																				
GUZTIRA	98	45	117	35																				
Portzentaia	69	31	77	23																				
L. H. 1. ZIKLOA																								
L.H. 1.A	14	4	9	9																				
L.H. 1.B	21	6	32	4																				
L.H. 2.A	33	2	26	8																				
L.H. 2.B	5	1	11	0																				
GUZTIRA	73	13	78	21	7	8	19	16	3	11														
Portzentaia	85	15	79	21	47	53	54	46	21	79														
L. H. 2. ZIKLOA																								
L.H. 3.A	21	0																						
L.H. 3.B	28	5	21	14																				
L.H. 4.A	6	10	7	8																				
L.H. 4.B	11	0	12	2																				
GUZTIRA	66	15	40	24	0	8	3	8	0	7														
Portzentaia	81	19	63	37	0	100	27	73	0	100														
L. H. 3. ZIKLOA																								
L.H. 5.A			18	0																				
L.H. 5.B	20	0	19	0																				
L.H. 6.A	22	2	16	2																				
L.H. 6.B	20	0	45	9																				
GUZTIRA	62	2	98	11	17	5	26	7	6	4														
Portzentaia	97	3	90	10	77	23	79	21	60	40														
GUZTIRA	299	75	333	91	24	21	48	31	9	22	40	50	31	52	24	109	11	19	27	20	39	39	8	19
ESKOLA																								
Portzentaia	80	20	79	21	53	47	61	39	29	71	44	56	37	63	18	82	37	63	57	43	50	50	30	70